

## TALAIAN

## Finantza merkatuen "irribarrea"

Finantza merkatuek, hau da, kapitalismo basatiak, "irribarre" egiten dute beraien morroiak eta Europako gobernuak hartzen ari diren norabidearen aurrean, batez ere zorpetuen dauden estatuek hartutako norabidearekin. Horien artean Espainiako eta Frantziako estatuak daude. Merkatu horiek irribarre egiten dute, gobernuetako defizit publiko eta subiranoarengatik inposatu zizkieten "etxeko lanak" modu atzeraezinean betetzen ari direlako. Apenas dagoen diferentziarik gobernuak, izan eskuindar edo izan sozialdemokrata, "merkatu" horiek asetzeko hartutako neurrien artean. Hor dago soldata publikoak izoztea, baita pentsioak izoztea ere 2011. urtean; hor dago joan den astean Espainiako senatuan onartutako lan erreforma, kaleratzeko erraztasun handiagoa ekarriko duena eta kaleratze horiek merkatuko dituen; hor dago BEZaren igoera... Hor daude Espainiako eta Frantziako estatuaren jubilazioaren inguruko eztabaidak, erretreta hartzea atzeratu eta merkatuzko; zain daude zergen igoera eta PFEZaren erreforma...

Oraindik langileen, gizartearen eta herritarren kontrako neurri gehiago hartzeke daude, baina pixkanaka inposatuko dituzte eta ahulenen bizkar gainean jarri. "Merkatu" horiek, irribarrez segitzen dute, badakitelako gobernuak bere egingo dituztela, lehen egin bezala, inposatutako "etxeko lanak". Ez da harrizkoa "Espainia merkatuek gaztigatutako herrialdeetatik aldendu" izana, zeren eta "inbertitzaileen arabera, Gobernuaren doikuntza plan gogorraren ondoren puntuak irabazi ditu". Langile klaseak eta herri sektoreak, duintasunagatik bederen, egoera horri aurre egin beharko liokete, nahiz eta, tamalez, ez den nahikoa izango kapitalismo basatiak bere neurriak inposatzen jarraitu ez dezan. Ase ezinik, "irribarrez" jarraituko dute.

Juan Mari Arregi

## "Total, euskara lehenago edo geroago, galdu egingo da"

LAGUN BATZUEN FAMILIAREKIN elkartu gara bazkalitzeko. Amonak ez du euskaraz egiten, gainerakook bai. Mahaian amonari gaztelaniaz egin diot beti, eta nire lagunekin batzuetan euskaraz eta bestetan gaztelaniaz, zalantzatan, amonak zer pentsatuko.

Lagunetako batek bazkal ondoren: "Harritu nau eguerdiko jarrerak, nirekin euskaraz egiten zenuen amonaren aurrean". Eta nik: "Batzuetan bai eta beste batzuetan ez, amonak zer pentsatuko zuen zalantza egin dut, nik ia ez baitut ezagutzen andrea, baina zuri erdaraz egitea izugarri kostatzen zait... -berotzen hasi naiz- eta ze arraio! amonak ulertuko du ba euskara, eta denok, bera ezik, euskal hiztunak gara, eta guk ez badugu egiten..."

Halako batean bota dit: "Total, lehenago edo geroago, guk ahalegina egin ala ez, euskara desagertuko da eta ez du merezi halako lanik hartzerik". Alboko beste lagunari irribarrez begiratu diot, bada-kidalako gauza bera ari garela pentsatzen, eta bota dit: "Euskara ez da desagertuko, eta hala gertatuko balitz ere, guk badaezpada ere euskaraz".

Irribarre konplizearen lagunak esan dit, duela gutxi lagun eszeptikoa nirekin akordatu dela: euskaraz baino gaztelaniaz gehiago egiten duen lagun bati hasieratik bukaerara euskaraz egin dio, temati, baina natural-natural.

Hurrengoan galdetuko diot ea nola sentitu zen abentura polit hartan.

Euskaldunen Hotela  
Seaskari dohaintzan

BAIONAKO Euskaldunen Hotela gurasoengandik jaso zuen Claire Haranek. 87 urteko andreak hotela saltzeko asmoa zuen, baina iritziz aldatu du. Hôtel des Basques dohaintzan emango dio Seaskari, besteak beste, haren ideiekin bat egiten duelako.

Pamiela argitaletxeak,  
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

# JUAN ZELAIA

## X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte**

**Lanak bidaltzeko:** Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),  
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea  
☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: [www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)

